

Zainak: azal grafikoak

Ametsen pisua

Aitor Irulegi Lopez

Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco UPV/EHU
Arte Ederren Fakultatea -Facultad de Bellas Artes
Irudigintza Saila - Departamento de Dibujo
aitor.irulegi@ehu.eus

Orain lo hartzera (hiltzera) noa, eta zuekin amets egitea espero dut. Kontzentra zaitez, bidean galtzea aurkitzearen parekoa da. Nire aitzindari guztiak naiz, hildakoek bizidunetan egiten dute habia. Sagar ustelak sagarrondoaren inguruan, bizi kiratsa dario, eta horregatik da hain ederra.

Paragrafo poetiko eta misteriotsu honekin hastea erabaki dut, portadarako aukeratu dugun marrazki urdin txikiarekin lotura estua duela ikusi dudalako (benetako tamaina 19.5 x 19.5 cm). Badira pintzel kaligrafiko japoniarrak imitatzen dituzten errotulagailuak eta hauei esker trazua lodierarekin jolasteko aukera izan nuen. Nire egiteko era bat da marrazkiak bata bestearen alboan pilatzea, eta modu honetara ia inkontzienteki formatzen doan paisaia batekin topatzen naiz, bide horretan egotea trantze batean sartzea bezalakoa da, eta amaitzen dudanean nire jaioterriko paraje naturala gogorarazten dit.

Bada beste gauza bat marrazkiari begiratzean gertatzen zaidana, ez dakidala non hasten eta amaitzen diren formak. Formak bi eratara ulertu daitezke: bat, marrazki talde bilduak forma independenteak balira bezala ikustea eta azpiko paperaren zuriaren hauen hondoa izatea; edo bi, trama marrazkiak hauek alboan duten espazio zuriaren jarraipena edo itzala izatea. Hau da, kasu batean urdina bakarrik da figura eta bigarrenetan urdina eta zuriak biak osatzen dute figura. Horregatik esan ahal da bi dimentsio ezberdin dituela gauza beraren barruan. Arrazoi horregatik marrazki honek berarekin amets egiten uzten digula esan liteke.

Nere iritziz, marrazki honen dentsitatea etereo da, ametsen pisua baleuka bezala. Nolabait xehetasunean bete bete sartzeko litzateke, lerroa errepikatzea, hainbeste bidean galtzen zaren arte, nolabait espero ez duzun zerbaitekin topatzen naizelarik. Horrelako era batean marrazten dudanean, ez da niretzat interesgarri irudia urrutitik ikustea; izan ere, kontzientziak momentu horretan naraman sorginkeria itzaltzen baitu.

Beranduago, emaitzarekin topatzen naizenean, zenbait figura besteen barruan ikusteko gai naiz, batzuetan ikusten ditudanak eta bestetan ez. Iruditzen zait, marrazki honen indarra interpretazioetara irekia egotea dela, interpretazio ezberdin asko posible egitea, berezia egin zitzaidan ikustea nola ikusten zuen pertsona bakoitzak zerbaitekin ezberdina ikusten zuela. Dragoiak, sua, ura, buru hezurak, arranoak, putreak, giza figura, paisaiak... Eta kontua da batek ikusten duena ikusezina dela bestearentzat, azaltzen dion arte. Kontu honek sorginkeria balitz bezala funtzionatzen du. Marrazkia hasiera batean ez da ezer, eduki ohi dudan intentzio bakarra trama bat osatzea izaten da, edo marrazki bat, baina hortik aurrera ikusleen begiradak agertzen dira nik ikusi ez ditudan gauzak amesten. Azken hau iruditzen zait lan artistiko askok partekatzen duten ezaugarri bat dela, gako orokor bat bezala.

Orain aipatu nahiko nuke, absentzia presentzia dela. Nire marrazkian ikusleak dituen amets horiek, bertan agertzen dira, daude, baina berez ez daude. Dragoi horiek ez daude marrazkian, baina norbaitek ikusten dituen momentu berean, agertu egiten dira, eta hor daude. Hala eta guztiz ere, oraindik ez lirateke guztiz errealak izango, partekatzen ez direlako edo beste batek ikusten ez dituelako. Gauza bera gertatzen da norbait hiltzen denean, zuk aurki izango dituzu bere biloban, edo beste gauzetan, momentu konkretu batean, baino gainerakoek ez. Erokeria dirudi baina nik sinesten dut familia bazkari batean, begirada zorrotza duenak, birramonak,

Cita bibliográfica recomendada para este artículo:


IRULEGI LOPEZ, Aitor

"Zainak: azal grafikoak. Ametsen pisua",

Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía, nº 42, 2024, pp. 97-99, <http://dx.doi.org/10.13140/RG.2.2.15122.16323>

osabak eta bestelako familiako kide hilak mahi inguruan eserita ikusiko dituela absentziaren formatuan, aldi berean presentziarena izango dena, paradoxikoki. Daudela baino ez daudela esateko modu bat da, dragoiak nire marrazkian bezalaxe.

Amaitzeko, lo hartzeari buruz hitz egin nahiko nuke, lehen paragrafoan hiltzearekin konparatu dudana, nire erara. Ez dakit zergatik edo nondik datorkidan baina aspalditik daukadan ideia da arteak hiltzeko prestatzen gaituela, itxaropen baten modura. Ez dakit zenbateraino den egia, edo posible den heriotzarako norbait prestatzea, edo posible ote den gaitasun hori garatzea artea ikusiz edo eginaz. Era guztietara, badakit ideia hauek ez direla inolaz ere nigan jaio eta nolabait kontsolatu egin nintzen Andrei Tarkovsky-ren *Esculpir en el Tiempo* (1984) liburua irakurtzen ari nintzela honek esan zuenean artearen helburua gizakia heriotzarako prestatzea zela. Agian arteak ametsa posible ez den tokia amesten erakusten digu, posible ez den baino era berean posible den tokian, paradoxa bat balitz, nere marrazkiko dragoiak balira bezala.



Irudia 1. Azalen kokapenaren adibidea. Aitor Irulegi.

Jatorrizkoa: marrazkia, 19.5x19.5 cm. Irudi digitala (2024): 300 puntu, 35x35 cm.